

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4744

EBAZPENA, 2024ko urriaren 4koa, HABEko zuzendariarena, HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean (HEOC) ezarritako euskararen komunikagaitasun-mailak egiaztatzeko proben 2024ko ekitaldirako antolaketarako laguntzaileak eta azterketa-batzordeko kideak izendatzeko dena.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, 2020ko irailaren 9ko Aginduaren bidez, HEOCen zedarritutako gaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko prozedurak ezarri zituen, eta, aipatutako aginduaren babesean, HABEko zuzendari nagusiak, 2023ko abenduaren 21eko eta 2024ko urtarrilaren 26ko ebazpenen bidez, aurtengo egiaztatze-deialdiak egin zituen.

Gero, 2024ko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren bidez, komunikagaitasun-mailak egiaztatzeko proben Azterketa Batzordeko kideak, HOBE deialdiaren arduradunak, epaimahaiak, ebaluatzaile ikerleak, tutoreak, ordezko tutoreak, lurralde-arduradunak eta antolaketarako laguntzaileak izendatu zituen, proba horien antolaketa- eta didaktika-alorretako lanei ekin ziezaieten.

2024ko deialdietako 2. azterketaldian matrikulatzeko aldia amaituta, lehen aipatutako izendapenak aldatu behar dira, eta antolaketa laguntzaile berriak izendatu behar dira 2020ko irailaren 9ko Aginduan eta 2024ko urtarrilaren 29ko Ebazpenean xedatutakoari jarraikiz; eta, HABEren 2024ko deialdiak gauzatzeko asmoz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– HEOCean ezarritako euskararen komunikagaitasun-mailak egiaztatzeko 2024. urteko deialdietarako azterketa-batzordeko kide hauek izendatzea:

Xabier Balerdi Tolosa, HABEko Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuko arduraduna, presidente gisa jardungo duena.

Iñaki Villoslada Fernández, HABEko Ebaluazio eta Egiaztatzerako Arloko arduraduna, idazkari gisa jardungo duena.

Maialen Otegi Saez de Egilaz, euskaltegi pribatuen eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen ordezkeri gisa, Aitziber Balantzategi Ibargoitziaren ordez.

Bigarrena.– HEOCean ezarritako euskararen komunikagaitasun-mailak egiaztatzeko 2024. urteko deialdietarako azterketa-batzordeko kide hauek izendatzea.

Josu Vazquez Concha.

Miren Arrate Eizagirre Gesalaga.

Hirugarrena.– Interesdunei jakinaraztea ezen, administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa jar diezaioketela Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2024ko urriaren 4a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.